

Herrian, eskolan, auzoan, elkartean, euskaltegian...

Esku artean duzun hau zure
herrian, eskolan, auzoan,
elkartean... sorionekuak
dinamika lantzeko tresna da.
Irakurri eta erabili nahi erara,
eta zabaldu lau haizetara!

1. Zer da sorionekuak?

‘Sorionekuak’ euskararen aldeko dinamika herritarra da; guztiok gara sorionekuak. Eta, batez ere, sorionekuak dei bat da: euskararen aldeko deia, eskubideak errespetatzearen aldekoa, herritar guztien berdintasunaren aldekoa, harrotasuna zabaltzekoa.

Euskara nafar guztiona

Euskara hemengoa delako, Nafarroa osokoa, eta Nafarroa osokoa bada, euskara denona ere badelako, nafar guztiona. Euskarak ez du inor kanpoan uzten, euskara denon plaza, hizkuntza eta ondarea da. Bada garaia, behingoagatik, euskarari Nafarroan merezi duen tratamendua emateko. Abestiak zioen moduan, Ze arraroa euskararik gabe Nafarroa.

2. Sorionekuak Izan Nahi Dugu!

Zure herrian, eskolan, auzoan, elkartean, lagun taldean, ikastetxean dinamika landu! Sorionekuak izan nahi dugulako, gutako bakoitzaren aletxo ezinbestekoa da. Herritarren sare aktibo bat osatzea proposatzen dugu, irekia eta norberak bere espazioetatik landua. Manifestua hori da: Nafarroa osoari deia, euskararen aldeko aldarri argia. Anima zaitez, antolatu, aberastu, bultzatu eta zabaldu dinamika!

3. Kronograma

Udaberria bitarte egitasmo bateratu batzuk planteatzen ditugu.

Otsaila: Dinamikaren aurkezpen argazkiak. Inauterietan sorionekuak. Materialaren zabalpenerako gune fisikoak (Otsailaren 20tik aurrera).

Martxoa: Euskararen egunak herrietan. Dinamikaren aurkezpen argazki gehiago. Gune fisikoetan materiala eskatzeko azken eguna (Martxoak 10).

Apirila: Eskaturiko materiala jaso. Abestia eta koreografia. Euskararen egunak

herrietan.

Maiatza: Eskola, ikastetxe eta institutuetan lanketa unitate didaktikoen bitartez. Euskararen egunak herrietan.

Ekaina: Ekainak 10. Iruñea. Mobilizazio herritar historikoa.

4. Ideia Saltsa: Egin Ezazu Behar Duzuna!

‘Sorionekuak’ guztion artean egin eta aberasten dugun ekimena da. Kendu lotsa, askatu imajinazioa! Ideia batzuk proposatzen dizkizugu hemen: bideoklip lehiaketa; bermutak bazkariak edota afariak; zure herriko elkarteekin elkarlana; aurkezpenak egin; abestiak sortu edo bertsionatu; muralak margotu; talde-argazkiak, txapelketak (kirola, musa, mahai jolasak.. baita haur eta nerabeentzako ere!); marrazkiak; ipuinak; komikiak; kontzertuak; tailerrak; hitzaldiak; eskulanak; bideo laburrak; dantzak... guztia da dinamikaren parte!

Ekainaren 10eko mobilizaziora dei egiteko eta deialdia zabaltzeko hamaika modu daude; baina, batez ere, gutako bakoitzak egiten du hori. Guztiok gara beharrezkoak bide honetan. Garrantzitsuena norberak bere alea jartzea da. Horregatik, gutako bakoitzak gure lagun, ezagun, lankide eta ingurukoekin dinamika konpartitzen badugu eta deialdia zabaltzen badugu, eta ingurukoek haien ingurukoekin, milaka pertsonengana iristeko aukera eta gaitasuna izanen dugu. Idatzi, deitu, animatu eta egin dezala norberak, dakienetik eta gustuko duenetik, bere ekarpen propioa. Guztiok gara sorionekuak!

Guztiok gara sorionekuak!

Argazkiak, bideoak, ekimenak, egitasmoak... bidali hona: sorionekuak@gmail.com

Euskarriak Guztion eskura 5. Materiala

Dinamikaren baitan materiala aterako dugu (otsail-martxoa). Material eskaria egin nahi izanez gero, saiatu auzokide, lankide, klase-kideekin batera gune fisikoetan egiten.

Zure ikastetxean, elkarteetan, euskaltegian... ‘Sorionekuak’ materiala saldu eta gune fisiko gisa antolatu nahi izanez gero, honako pausoak jarraitu:

- 1- Herritarren, ikasleen, irakasleen, bazkideen.. artean, eskariak jasotzeko pertsona zehaztu.
- 2- Lagun horrek otsailaren 20tik martxoaren 10era gune horretako eskariak eta dirua jaso.
- 3- Martxoaren 13a baino lehen, online eskaria egin behar du helbide honetan (labur.eus/gunefisikoak). Bertan elkarte, eskola etab. izena eskatuko da.
- 4- Martxoaren 27tik Apirilaren 6ra – Materiala guneetan jaso eta banatu.

Material zabalpenaren kronograma:

Otsailaren 14tik aurrera – Katalogoaren zabalpena lau haizeetara.

Otsailak 20 – Martxoak 10 – Gune fisikoetan eskariak jasotzeko tartea.

Martxoak 27 – Apirilak 6 – Materiala guneetan jaso.

EUSKARRIAK GUZTION ESKURA

Esteka honetan erabiltzeko euskarri ezberdinak dituzu, manifestua, aurkezpen bideoa, power-pointa, kartel ereduak, pegatinak... hartu eta egin behar duzuna:

<https://labur.eus/SORIONEKUAK>



Kamiseta urdina							
Zabala		S	M	L	XL	XXL	10,00 €
Estua		S	M	L	XL	XXL	10,00 €
Kamiseta zuria							
Zabala		S	M	L	XL	XXL	10,00 €
Estua		S	M	L	XL	XXL	10,00 €
Umea		4	6	8	10	12	10,00 €
Sudadera							
Helduak unisex	XS	S	M	L	XL	XXL	30,00 €
Umea		4	6	8	10	12	25,00 €
Koloretako kamisetak							
Umea		4	6	8	10	12	10,00 €
Umeen bisera		T/G					6,00 €
Estutxea		T/G					6,00 €
Botila		T/G					6,00 €
Motxila		T/G					6,00 €

HARREMANETARAKO Hauek dira gure sare-sozialak
ENVELOPE sorionekuak@gmail.com Instagram @sorionekuak Twitter @sorionekuak
Globe sorionekuak.eus

